

METAFISIKA ONDO ZIMENTATZEAZ

Idatzi nuelarik nire lehen liburua oraindik hasi berria nintzen filosofiako karreran, eta paradoxikoa bada ere nire erreferente nagusia, filosofian ere, poeta bat zen, Goethe. Horregatik idatzi nuen ezen zientziaren hastea deskripzioa dela.

Hori ez da gezurra, baina badago beste zerbait, horren aurretik dena, egiazko zientzia ororen hastea, zimentarria dena, eta hori ikasi dut filosofiako karreran aurrera egiten, eta orain zientziaren hastea ikasten dut dagoela objektu materialen definizioetan. Beraz, batez ere Grezia klasikoaren filosofian sakondu dut, duen hoberenean, eta Sokrates deskubritu dut Platonen dialogoetan eta Aristotelesen komentario batzuetan haren aportazioaz.

Baina kosmos materiala ez da inmutablea, kontrara, mutablea da, igarotze etengabea dela erran genezake. Horrek erran nahi du ezen objektu material baten definizioa egiterakoan materiatasuna abstraitu egin behar dela, eta hor jada zientziaren zimentua den definizioa egina dugu. Baina materiatasuna abstraitua dugunez definizioetan beti da posible aurreratzea, eta mehetzea, eta ondorioz hortik datorren zientzia beti da posible hobetzea, eta hori infinituraino. Horrek erran nahi du zientziaren edozein une hobegarria dela, hau da, inperfektua. Materiatasuna ez dugu konprenitzen bere osotasunean, hitz batean erranda. Eta kosmos materialaren ezagutza universalik ezinezkoa da beti.

Objetu material bat estudiatzen dugularik bilatzen duguna da objektu horren definizio universalak. Baina egiazko definizio bat egiteko objektu horren materiatasuna abstraitu behar dugu derrigorrean. Eta abstraitzea da objektu material hori inmutable balitz bezala konprenitzea, hipotesis bat egiten dugu, beraz, eta holaxe badugu posible definizioa egitea, eta horrekin zientzia egiten hasten gara. Gu materialistak gara, eta horregatik diogu abstraitzea dela nola inmutable egitea, baina hori kosmos material honetan ez da gertatzen, eta horregatik beti dugu posible ikasten zientziaren aurrerapen bat infinituraino ere, abstraitzeak, zientziaren une orotan, garapen bat gertatuz gero, adibidez, beti direlako gero eta meheagoak, eta hortik zientzia ere hobea, zehatzagoa izan daiteke beti. Baina ezin dugu kendu burutik, behintzat egiaren bidetik bagoaz, ezen gure zientziaren momentu orotan estudiatzen ditugun objektuen abstraitzeak egin ditugula, hau da, ez dugu ukitu materiatasuna bere osotasunean inoiz, eta hortik gure logoaren, orohar hartuta, tara bat, imperfekzio bat, beti gertatuko dena kosmos honetan. Eta sekula ez dugu iristen egiazko universalatasuna gure ezagutzan.

Abstraitzerik perfektuena matematikan bururatzen da, eta matematika da inmutablesunaren erresuma bezalakoa, eta posible badira zientzia horretan ezagutza universalak (triangeluaren kasua paradigmaticoa da), eta horregatik logika formalean badira posible kuantifikatzaile universalak sartzea, hau da, universal bihurtzeak. Baina, platonismoan ez bezala, guk ez dugu ikasten hor teorizazio bat besterik, eta ez, inondik inora, forma inmutableen kosmos goragokoa. Egia errateko matematikarekin urrundu egiten gara kosmos materialaren egiazko ezagutza unibersaletik, zeren matematikak abstraitzerik perfektuenak baitira, materiatasunaren abstraitze muturrekoa, nolabait errateko. Eta kosmos materiala da ezagutu nahi duguna, eta ezin dugu zientziarik egin objektu material diferenteen definizio barik, eta definizioak egiteko ezinbestekoa dugu abstraitzea materiatasuna, beraz, berriro diot, galduta gaude kosmos materialaren ezagutza unibersalari dagokionez, ezin iritsizkoa da inola ere.

Beraz, abstraituz gero badira posible ezagutza universalak, hau da, Kanten terminologian, ezagutza a prioristikoak, baina ez dugu halako zientzia perfektua zeinak erakusten baitu soilik kosmos materialaren zientzia duenak, eta hori abstraitu barik materiatasuna, hau da, kosmos materialaren ezagutza universalak duenak, ezagutza a prioristikoa. Baina halakoa ezin da kosmos honetakoa izan. Kosmos honetan ezinezkoa baita zientziarik abstraitze prozesu barik, zientziaren garapenaren edozein unetan gaudela.

Bakarrik abstraituta lortzen dugu edozein objektu edo fenomeno material baten definizioa, eta horrekin zientzia egiten ahal dugu. Baina horrekin posible bada ere zientzia formal bat egitea, eta garatzea, formula matematiko konplexuenetaraino, ezin dugu horrela materiaren definiziorik lortu, behintzat definizio universalik, eta horrek erran nahi du ezen ez dugula kosmos materialaren ezagutza universalik inoiz. Hau da, ezin egin daiteke, materialismo estrikto batetik, judizio sintetiko a priori bat inondik inora kosmos honetan. Abstraituz gero, bai, badira egiten, eta hor dugu triangeluaren kasu paradigmaticoa, baina abstraitzea alde bat lagatzen dugularik eta materiarekin aurrez aurre gaudelarik orduan tratatuta dugu beti definizio egiazkoa, eta materia misterio egiten zaigu.

Gauzak horrela garbi dago ezen zientzia metafisikorako bide oro tratatuta dagoela, ezinezkoa dela. Zeren kosmos materialaren ezagutza universalak, izatekotan, ezin baitaiteke kosmos honetan izan, eta ondorioztatu dugu ezinezkoa dela halako ezagutza universalik kosmos honetan. Eta fisikatik harutzagoaz ez dakigu ezer. Ezin gaitezke fisikatik, zientifismo materialista batetik, atera. Eta hori ondorioztuta egiten da gaur egun, hizpide ezberdinak erabiliz, baina metafisika zaharra, eskolastikan garatua, alde bat lagata dago. Arrazoiakin zioen Kantek zimentu hareazkoetan eraikia dela, gaizki zimentatua beraz. Eta formalizazioa abstraitze ariketa beharrezkotzat jotzen dugu zientzia egiteko, ez zerbait goragokotik (forma in-

mutableen kosmos batetik) datorkigun irtenbidea, eta bai materialiston metodoa definizio oinarritzkoak egiteko, beti hobegarriak, zientzia egin ahal izateko.

Baina inoiz ez da kontuan hartu ezen izan dela figura historiko bat, Jesus Nazarethekoa, zeinak egiten baitzituen signoak. Teologo kristauak ondorioztatu dute hortik haren divinitatea, baina filosofiatik ikertu ahal da signo bat?. Ni nago ezen baietz, ikertzen ahal dela. Eta nire ikerketen arabera Jesusek egiten zuen divinitateari soilik dagokiona, hau, esan eta izan. A priori ez soilik erabaki egiten zuen libreki, a priori bazekien zer gertatuko zen, eta zehaztasun osoz. Horrek erran nahi du ezen Jesusek bazuela ezagutza universalik, eta hortik materiazkoa gobernatu ahal izatea, utopia dena guretzat, baina Haren-zat egiazko errealitate bat.

Jesusen logoa, berba, ez da gurea bezalakoa, gurea indar eskasekoa da, teoriarik garatuenak ere bururatzen ditugularik guk ez dugu Harek zuen indar miragarria. Haren logoa ez da kosmos honetakoa, kosmos goragoko batekoa baizik. Eta misterio zaigu, baina egiazko fenomeno da gertatu izan dena historia unibersalean, kosmos honen historia barruan, Jesus eta Bere signoak.

Gure logoak ezin du halakorik egin, baina Jesusen logoak ba ahal du, eta erakusten digu horrela ezen badela zientzia metafisikoa zimentatzerik, eta Jesusen signoen estudiotik ondorioztatu dugu, eta oraingoan haitzaren gainean, behar den ganorarekin, hitz batean erranda.

Zientzia hori elikatu egingo litzateke teologia katolikotik, zeinaren baitan ni ez naizen sartzen. Nik bakarrik filosofia egin nahi dut, eta zilegitzat iruditzen zait fenomeno historiko orotan ikertzea, eta baita Jesusek egiten zituen signoak ere hartzen ditut ikergarri filosofiatik, zergatik ez?.

Eta Jesusen laguntzarik gabe, permititzen bazait horrela espresatzea, ni ere materialista zientifista izango nintzen, baina Jesus deskubri-

mendua izan da nire bizitzan, eta filosofiatik ikertu nahi ditut Haren obrak. Eta onenerako joera badut, joera aristokratikoa, nik ez dut zalantzarik egiten: Jesus da nire lehentasuna. Hura bezalakorik ez dut ikusi nire azterketetan, eta historia osoa arakatu dut. Gure logoa Harenarekin alderatuta huskeria hutsa da, abismo bat ere dagoela erranen nuke nik Haren Verbotik gurera. Eta esplikatu dut zergatik lantxo honetan.

Roman Garmendia